



Kolonoskopia birtualerako prestaketa



OTA bidezko kolonoskopia birtuala minutu gutxitan egiten den teknika bat da, ondesteko kanula txiki beten bidez airez kolona zabaldu ondoren. Teknika ondo egiteko, ezinbestekoa da behar bezala prestatzea.

Azterketa honen alderdirik garrantzitsuena prestaketa ona egitea da, kolonean ez dadin hondakinik egon.

PRESTAKETA PROBA BAINO HIRU EGUN LEHENAGO HASTEN DA

Prestaketarako, botikan GASTROGRAFIN flasko bat eta Micralax garbiketa-enema bat erosi behar dira, eta supermerkatuan 1,5 litro "AQUARIUS® o ISOSTAR".


➤ HIRU EGUN LEHENAGO:

- ✓ Hondakin gutxiko dieta + 2 litro ur gasgabe.
- ✓ Gosaria, bazkaria eta afaria.

➤ BI EGUN LEHENAGO:

- ✓ Hondakin gutxiko dieta + 2 litro ur gasgabe.
- ✓ Gosaria, bazkaria eta afaria. Afarian uretan disolbatutako Gastrografin zopa-koilarakada bat hartu beharko da.

Gosaria	Bazkaria	Afaria
<ul style="list-style-type: none"> • Uretatik pasatako arrautza • Ogi txigortua (Biskoteak) gurinarekin. • Fruta-zukua mamirik gabe (iragazita) • Kafea esnerik gabe, infusioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Espagetiak gurinarekin edo arroz zuria tomaterik gabe. • Txahal urrixa xerra, oilaskoa edo arraina plantxan • Fruta-zukua mamirik gabe (iragazita) • Ogirik ez • Kafea esnerik gabe, infusioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Iragazitako saldak eta koiperik gabeak • Arrautzopil hutsa edo arraina plantxan • Fruta-zukua mamirik gabe



EZIN DIRA HARTU

Frutak, barazkiak, egoskariak, patatak, arrainak eta haragiak saltsan, hestebeteak, koipeak, frutak, pastelak, osoko ogia, esnea, esnekiak eta edari gasdunak

➤ **PROBAREN AURREKO EGUNEAN:** dieta likidoa

- ✓ **Gosaria:** 1 katilu infusio + iragazkitik igarotako 1 edalontzi zuku + 1 edalontzi "ISOSTAR ®" + 1 koilarakada GASTROGRAFIN uretan disolbatuta.
- ✓ **Goiz-erdian:** 1 katilu infusio + 1 edalontzi "ISOSTAR ®" + 1 koilarakada GASTROGRAFIN uretan disolbatuta.
- ✓ **Bazkaria:** 1 katilu haragi-salda koiperik gabe + iragazkitik igarotako 1 edalontzi zuku + 1 edalontzi "ISOSTAR ®" + 1 koilarakada GASTROGRAFIN uretan disolbatuta.
- ✓ **Merienda:** 1 katilu infusio + 1 edalontzi "ISOSTAR ®".
- ✓ **Afaria:** 1 katilu haragi-salda koiperik gabe + iragazkitik igarotako 1 edalontzi zuku + 1 edalontzi "ISOSTAR ®" + 1 koilarakada GASTROGRAFIN uretan disolbatuta.

OHARRA: Gauean gosea baduzu, "ISOSTAR ®" edo zukua har dezakezu.

➤ **PROBAREN EGUNEAN:**

- ✓ Esnatzean, sartu "MICRALAX" garbiketa-ENEMA bat ipurditik.
- ✓ Gosaria: 1 katilu infusio + iragazkitik igarotako 1 edalontzi zuku.
- ✓ Dieta absolutua, gosariaren ondoren.